


Euskararen Ordenantza Eredugarriak



Euskara sustatzeko eta Euskalgintza babesteko
Akordio Soziopolitikoak

2007ko otsailean



Aurkibidea

Sarrera.....4

Lehenengo kapitulua

Xedapen orokorrak.

1-4 artikulua4-5

Bigarren kapitulua

5-21 artikulua5-11

Hirugarren kapitulua

22-31 artikulua12-15

Xedapen gehigarriak.....14-15

Jarraipenerako Batzorde Berezia

Batzordearen betebeharrak

Emaitzen neurketa

Udal-proiektuak

Sarrera

Euskara Euskal Herriaren Kultura Ondarearen oinarritzko osagarria da, berezkoa eta ez ofiziala bere lurralde osoan. Haren egoera gutxituak beharrezko egiten du lehentasunezko trataera eskaintzea euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatuko badira.

Administrazio Publikoen autonomia-printzipioa kontuan hartuz, adieraz dezakegu Udal-administrazioari badagokiola euskararen normalizaziora iristeko behar diren neurriak hartzea, euskararen erabilera bermatu eta arautzea, hala nola ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta bitartekoak erabaki eta erregulatzea. Administrazio bakoitzari dagokio aipaturiko arau eta xedapen orokorrak bere jardun-eremuan aplikatzea eta aplikazio horretarako arauak eman eta bitartekoak ezartzea. Horixe da ordenantza honen xedea Arraldeko Udalaren jardun-eremuan hezurramitu eta aplikatu daitezkeen arauak eman eta betearaztea.

Aipaturikoan oin hartuz, Euskararen Ordenantza honek oinarriak ezartzen ditu, euskararen erabileraren normalizazioari buruzko udal-ekintza arautzeko, hala administrazioaren barne-erabilerari eta herritarrekiko harremanei dagokienez, nola udalerrriaren gizarte-bizitzan.

Helburuok erdiesteko epeak udalaren beraren eta udalerrriaren egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta zehaztuko ditu udalak, bertan eskaintzen diren aplikazio-graduen arabera.

Lehen kapitulua

Xedapen orokorrak

1. ARTIKULUA **Hizkuntza ofiziala**

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza da, Arralde Udaleko eta bere Erakunde Autonomoetako eta udalerriko hizkuntza ofiziala da.

2. ARTIKULUA **Aplikazio esparrua**

Aplikazio orokorra izan dezaten Ordenantza honetako xedapenen arabera erabiliko dute euskara Arraldeko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek. Bere barne-funtzionamenduan nola herritarrekiko harremanetan baita organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan ere, azken helburua euskara jakitea eta haren erabileraren normalizazioa izango da.

Udalaren eskumeneko zerbitzu batzuk hirugarrenek egiten badituzte, edozein dela ere horretarako kudeaketa modua, haietan ordenantza hau aplikatuko da.

3. ARTIKULUA **Lehentasunezko tratamendua beste hizkuntzekiko berdintasun erreala lortzeko**

Urte luzetan euskarak jasan duen ordezkatzeko-prozesuaren ondorioz, benetako normalizaziotik urrun gaude. Hortaz, eta herritarrek nahiz udal-langile euskaldunek berdintasunezko tratua jaso dezaten eta euskara normaltasun osoz erabiltzeko aukera izan dezaten, lehentasunezko tratamendu berezitua emango dio Arraldeko Udalak euskarari.

4. ARTIKULUA **Herritarren hizkuntza-eskubideak**

Euskal Herriko hiritar guztiek dute euskara ezagutu ez ezik erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz, Arraldeko Udalak hizkuntza-eskubideen izenean honako hizkuntza-eskubideak aitortzen dizkie espresuki hiritarrei:

- a) Udalarekin, azpikontratutako enprekin eta bere menpeko organismo ororekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz izateko eskubidea, zerbitzuaren kalitatean murrizketarik izan gabe.
- b) Udalak antolatu edo/eta gestionaturiko ikasketak oro euskaraz egiteko eskubidea.
- c) Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irratia eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea.
- d) Udaleko edozein bileratan euskaraz aritzeko eskubidea.

Bigarren kapitulua

5. ARTIKULUA **Udalarekiko harremanak euskara hutsean ziurtatzea**

Hiritarrek Udalarekin berek aukeratutako hizkuntza ofizialean jardun dezaketenez, Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi duten hiritarren aukera bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu Udalak; horietan lehena, aukera hori egin dezan hiritar multzoa identifikatzea izango da. Udalarekiko harremanean euskara hutsean zuzenduko zaie Arraldeko Udala. Gainerako herritarrei helarazitako komunikazio idatzietan euskarak berdintasunezko presentzia izango du.

Herriaren tipologiaren arabera honako gradu hauek hartuko ditugu helburutzat:

Heri tipologia	Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna)	Graduazioa
1. tipologia	%70-%100	Herritarrekiko arreta zerbitzuen % 100
2. tipologia	%50-%70	Herritarrekiko arreta zerbitzuen % 100
3. tipologia	%15-%50	Herritarrekiko arreta zerbitzuen % 75
4. tipologia	%0-%15	Herritarrekiko arreta zerbitzuen % 50

6. ARTIKULUA **Laneko hizkuntza**

4. eta 5. artikuluetan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen beharrezko diren neurriak hartuko ditu Udalak. Hortaz, hiritarren zerbitzurako hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ere izango da euskara Arraldeko Udalean, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera. Beraz, Arraldeko Udaleko langile guztiek ezagutuko dute euskara, dagoeneko lanean ari direnak euskaldunak eta kontratazio berrietan euskaldunak kontratatuz.

Herriaren tipologiaren arabera honako gradu hauek hartuko ditugu helburutzat:

Herri tipologia	Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna)	Graduazioa
1. tipologia	%70-%100	Udal Sailen % 100 euskaldun
2. tipologia	%50-%70	Udal Sailen % 100 euskaldun edo erabilera-planean
3. tipologia	%15-%50	Udal Sailen % 70 euskaldun edo erabilera-planean
4. tipologia	%0-%15	Udal Sailen % 25 euskaldun edo erabilera-planean

7. ARTIKULUA Enpleguak euskalduntzea

Aurreko artikuluetan jasotakoa betetzeko xedez, udal-enpleguak euskalduntzeko neurri egokiak hartuko ditu Arraldeko Udalak. Horretarako plangintza bat sortuko du lanpostu bakoitzean aritzen diren langileek euskara noizko ezagutu behar duten zehaztuz. Udalari dagokion kopurua 5 urteko epean eskuratuko du ordenantza indarrean jartzen denetik.

Udalak kontratatutako bestelako langileak, enpresak zein norbanakoak, Udalean edo Udalaren menpeko erakunde batean lanean arituz gero euskaldunak izatea lehenetsiko da, euskaraz lan egiteko eskubidea bermatze aldera. Langileek kasu guztietan betetzen duten lanpostuaren ezaugarrien arabera euskara maila egokia ziurtatu beharko dute.

Aurreko artikuluetan jasotakoa betetzeko xedez, udal-enpleguak euskalduntzeko neurri egokiak hartuko ditu Arraldeko Udalak. Horretarako Udalaren Udalaren plantilla organikoan zehaztuko da zer lanpostutarako, jendearekin harreman gehiago izateagatik edo administrazio prozedura normalduen katearen barnean duten lekuagatik, jakin behar duten euskaraz haiek okupatzen dituzten funtzionarioek.

Arestian ezarritakoa betetzeko Batzordea osatuko da eta horrek aztertuko du egin behar den proposamena. Txostenak gutxienez atal hauek kontuan hartuko dira: herritarrekin ahoz nahiz idatziz harreman gehien duten udal esparruen azterketa, administrazio-prozedura maizkoenak, aipatu esparru edo prozeduretan sartutako lanpostuen hizkuntza-eskakizunen definizioa, herritarrari harrera euskaraz egitea bermatuko duten zirkuitu elebidunen azterketa, eta jarduketan baten ezarpena bakoitzari atxikitako hizkuntza-eskakizuna eskuratzeko bitartekoak, baliabideak eta epeak finkatzearen.

Herriaren tipologiaren arabera honako gradu hauek hartuko ditugu helburutzat, udalak 10 urteko epea izango du dagokion helburura iristeko eta zehazten den urte kopurua denak euskalduntzeko:

Herri tipologia	Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna)	Graduazioa
1. tipologia	%70-%100	Langile denak euskaldunak izango dira.
2. tipologia	%50-%70	Langile denak euskaldunak edo plangintzan txertatuak.
3. tipologia	%15-%50	Langileen %70 euskalduna edo plangintzan txertatua.
4. tipologia	%0-%15	Langileen % 25 euskalduna edo plangintzan txertatua.

8. ARTIKULUA Harreman elebidunak ziurtatzea

Arraldeko Udalak, gizarte-izaerako eta izaera orokorreko zerbitzu eta unitateak gaituko ditu erabat euskaraz funtziona dezaten, udal zerbitzu guztietan hiritarrari euskarazko harremanak ziurtatzeko xedez. Euskara ezagutzen ez duten herritarren kasuan, komunikazioa idatzizkoa denean euskarak berdintasunezko presentzia izango du.

Herritarrari lehen hitza eta erantzuna euskaraz egingo zaio. Jarraitu, berriz, herritarrak egiten duen hizkuntzan.

Herriaren tipologiaren arabera honako gradu hauek hartuko ditugu helburutzat:

Herri tipologia	Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna)	Graduazioa
1. tipologia	%70-%100	Kasu guztietan euskaraz lehen hitza.
2. tipologia	%50-%70	Kasu guztietan euskaraz lehen hitza.
3. tipologia	%15-%50	Arreta zerbitzuetan euskaraz lehen hitza.
4. tipologia	%0-%15	Arreta zerbitzuen % 25ean euskaraz lehen hitza.

9. ARTIKULUA Lanpostuak betetzeko prozedurak

1.- Lanpostu berriak

Funtzionario izaera, nahiz behin betiko, nahiz behin-behineko izaera laborala duten lanpostuak betetzeko euskararen ezagutza ezinbestekoa izango da kontratazio berrietan.

2.- Kontratadun langileak

Plangintza baten arabera euskaldunduko dira langileak. Plangintzaren helburu nagusia 10 urteko epean langile denak euskaldunak izatea izango da.

3.- Barne-sustapena

Euskaldun batek betetzen duen lanpostua ezin izango du euskara ezagutzen ez duen batek bete, barne sustapenaren bitartez.

4.- Lan-deialdietan euskararen eskakizuna.

7. artikuluan aipatzen den plangintzan agertzen diren lanpostuak betetzeko euskararen ezagutza ezinbestekoa izango da kontratazio berrietan. Ezagutza maila, lanpostuaren ezaugarrien eta betekizunen arabera izango da.

Arraldeko Udalak lanpostuak betetzeko egiten dituen deialdietan euskararen ezagutza jaso kreditatzen duena merezimenduz baloratuko da. Hau da, lanposturako eskatzen den euskara maila baino jasoagoa kreditatzen duena merezimenduz baloratuko da.

5.- Azterketen ardura.

Lanpostuak betetzeko prozedura guztietan, Arraldeko Udalak, hizkuntza-adituei eskatuko die laguntza-azterketak egin eta zuzen ditzaten.

Herriaren tipologiaren arabera honako gradu hauek hartuko ditugu helburutzat:

Heri tipologia	Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna)	Graduazioa
1. tipologia	%70-%100	Kontratazio berri guztietan
2. tipologia	%50-%70	Kontratazio berri guztietan
3. tipologia	%15-%50	Udalerriaren ezagutza-tasa (euskaldunak + ia euskaldunak) + 20 puntu
4. tipologia	%0-%15	Udalerrien ezagutza-tasa (euskaldunak + ia euskaldunak) + 20 puntu

10. ARTIKULUA Agiriak inskribatzea

Udaletxera sartzen diren edo bertatik ateratzen diren agiriak, kasu guztietan euskaraz behintzat inskribatuko dira Udal Erregistroan; herritarrak horrela eskatuz gero beste hizkuntza ofizial bat erabil liteke eta.

11. ARTIKULUA Agiri ofizialak

Udalaren bando, buletin, araudi, ordenantza eta ebazpenak oro gutxienez euskaraz argitaratuko dira euskarazko testuari lehentasuna emanez, beste hizkuntza ofizialen testuaren gainean edo ezkerretara kokatuz. Bestalde, euskarazko testuaren letren neurria hiru puntu handiagoa izango da lehentasuneko irakurgarritasuna ziurtatzeko.

12. ARTIKULUA Euskarazko agirien balio ofiziala

Euskaraz idatzitako erabaki, jakinarazpen, xedapen, ziurtagiri eta gainerako agiri guztiek balio ofiziala dute.

13. ARTIKULUA Euskarazko lehentasuna

Araudi honen arabera mezua bi hizkuntza ofizialetan eman behar den kasuetan euskarazkoa lehenetsiko da denbora, tamaina, kopurua eta lekua erabiliz.

14. ARTIKULUA Aktak

Aktak Udaleko Batzorde Informatiboen, Gobernu Batzordearen eta Plenoaren eta Erakunde Autonomoen antzeko organoen bilkuretako akten testu originalak erabili den hizkuntza ofizialean edo ofizialetan idatziko dira eta kasu guztietan beste hizkuntza bat erabiliz egindako interbentzioek euskarazko itzulpena izango dute.

15. ARTIKULUA Euskara lan-hizkuntza

Udaleko organo guztiek dute -informatiboek nahiz exekutiboek- beren ohizko lan-hizkuntzat euskara aukeratzeko beharra. Erabaki hori hartzen duten organoen bilerak sistematikoki euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakiten partaideentzat aldibereko itzulpen zerbitzua emango da. Era berean, organo horien aktak, gutunak, jakinarazpenak eta agiriak oro euskaraz idatziko dira, beharrezko den kasuetan gaztelaniara itzultzearen kalterik gabe.

Langileek barne-funtzionamendurako ohar eta azalpen informaletan euskararen erabilera ziurtatzea bere egingo dute derrigorrez.

Herriaren tipologiaren arabera honako gradu hauek hartuko ditugu helburutzat:

Herri tipologia	Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna)	Graduazioa
1. tipologia	%70-%100	Udaleko organo guztiek ohiko lan-hizkuntza euskara izango dute.
2. tipologia	%50-%70	Udaleko organo guztiek ohiko lan-hizkuntza euskara izango dute.
3. tipologia	%15-%50	Plangintzaren eraginpeko organoek aldi bereko itzulpen sistema izango dute.
4. tipologia	%0-%15	Plangintzaren eraginpeko organoek aldi bereko itzulpen-sistema izango dute.

3. eta 4. tipologietan Euskalduntze Plangintzan sartuta egongo diren Udal Sailen portzentaia kalkulatzeko ezagutza tasa + 10 formula erabiliko dugu. (euskaldunek + ia euskaldunek osatzen dute ezagutza-tasa).

16. ARTIKULUA Bilkuretako deialdiak

Udaleko organo informatiboek eta exekutiboek bilkuretako deialdi guztiak gutxienez euskaraz idatziko dira, beste hizkuntza ofizial baten itzulpena eskatzen duten partaideei bakarrik igorriko zaie bertsio elebiduna.

17. ARTIKULUA Komunikabideekiko harremanak

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak euskaraz emango dira ezagutzera lehenetsunez, beste hizkuntza ofizial bat erabili behar denean euskarazko mezua lehenetsiko da denbora, tamaina, kopurua eta lekua erabiliz. Era berean, komunikabideetara bidaltzen diren ohar, abisu eta informazioekin ere berdin jokatu du Arraldeko Udalak. Bestalde, Udalak komunikabideei euskara lehenestea eskatuko die.

Publizitate instituzionala egiteko garaian, herrialdeko egunkari irakurrienean egingo bada, euskara lehenetsunez hartuko da kontuan. Kasu guztietan, euskara hutsezko iragarkiak jarriko dira herrialdeko euskarazko egunkaririk irakurrienean.

Publizitatea egiteko garaian, euskarazko herriko komunikabideak beti hartuko dira kontuan. Era berean, euskarazko herriko komunikabideekin hitzarmenak egingo dira dirulaguntzak bideratzeko xedez.

18. ARTIKULUA **Inprimakiak eta zigiluak**

Udalak eta bere menpeko organismoek erabiltzen dituzten inprimaki guztiak euskaraz lehentasunez eta erdaraz idatzita inprimatuko dira, edozeinetan betetzeko moduan eta euskara kasu guztietan lehenetsita.

Halaber, Udalaren eta bere mendeko organismoen zigilu guztiak, nahiz barne-funtzionamendukoak nahiz proiektzio publikoa duten agirietan estanpatzekoak, euskaraz gutxienez idatziko dira.

Berdin gertatuko da kalean jartzen diren Udalaren ardurapeko beste edozein kartelean ere.

19. ARTIKULUA **Euskara bakarrik erabiliko den kasuak**

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara bakarrik erabiliko da:

1. Arau hauetako 5. artikuluan aipatu hiritarrei bidaltzen zaizkien gutun, agiri eta jakinarazpenetan eta beraien eskariz irekitzen diren espedienteetan.
2. Administrazio Publikoei igortzen zaizkien idatzietan
3. Euskara normalizatzeko lanean ari diren enpresa, saltoki eta era guztietako entitateei eta Euskalgintzakoei bidaltzen zaizkien idatzietan.
4. Errotulu, seinale eta antzekoetan euskaraz eta erdaraz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.
5. Mezua piktogramaz baliatuz adieraz litekeenean.
6. Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek hala eskatzen dutenean.
7. Kale, plaza eta edozein leku publikoren izena, bai errotuluetan, baita izen horiek biltzen dituen kalen izendegi ofizialean ere.

Herriaren tipologiaren arabera honako gradu hauek hartuko ditugu helburutzat:

Herri tipologia	Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna)	Graduazioa
1. tipologia	%70-%100	Euskara hutsean.
2. tipologia	%50-%70	Euskara hutsean.
3. tipologia	%15-%50	Euskara lehenetsiko dute.
4. tipologia	%0-%15	Ele bietan erabili ahalko dute

20. ARTIKULUA **Udal Egoitzetako errotulazioa**

Udaletxeko, Udalak kontratatutako eta Udalaren menpeko organismoen egoitzetako errotulazioa euskaraz egongo da lehentasunez.

Herriaren tipologiaren arabera honako gradu hauek hartuko ditugu helburutzat:

Herri tipologia	Euskaldun kopurua (euskalduna + ia euskalduna)	Graduazioa
1. tipologia	%70-%100	Euskara hutsean.
2. tipologia	%50-%70	Euskara hutsean.
3. tipologia	%15-%50	Euskara lehenetsiko dute.
4. tipologia	%0-%15	Ele bietan erabili ahalko dute

21. ARTIKULUA Beste erakundeekiko harremanak

Euskal Herrian kokatutako erakunde ofizialetatik naiz Administrazioetatik jasotzen diren edonolako idazkiak euskaraz ez badaude, jatorrizko lekura iritsiko dira, berreginik igor dezaten eskatuz Udalaren jardun egokiaren kalterik gabe.

Hirugarren kapitulua

22. ARTIKULUA Herritarren ezagupena eta erabileraren sustapena

Lau dira euskararen erabileran, Arraldeko udalerrian, euskara normalizatzeari dagokionez, Udalak bere gain hartzen dituen helburu nagusiak: euskaraz dakiten herritarren kopurua gehitzea, euskararen erabilpena ziurtatzea, euskaraz dakitenek baita ikasten ari direnek ere erabil dezaten bultzada iraunkorra ematea eta enpresa, saltoki eta era guztietako entitateen jarduna euskalduntzea.

Hori horrela delarik, euskaraz dakitenen hizkuntza-ohiturak aldatzearen aldeko saioak burutuko ditu Udalak, modu iraunkorrean, nola bere ekimenez, hala bere gainetik dauden erakundeen, herritarren eta enpresa, saltoki eta era guztietako entitateen arteko bitartekotza eginez.

Era berean, eta erabilpena ziurtatu eta bultzatu eta gaurko erabilera-esparruak handitzeko xedez, ahalgin berezia egingo du euskaraz hitz egiten dakitenak alfabetatu daitezen.

Arraldeko udalak euskararen erabileraren normalizazioaren aldeko ekimenak sustatuko ditu, bai udal jardun eremuan bai udalerrian ere, bere ahalmenaren eta eskumenen baitan.

Hortaz, erraztasun guztiak emango dizkie herritarrei, udalarekiko harremanetan euskaraz normaltasun osoz jarduteko aukera izan dezaten, eta ahalik eta eperik laburrenean, udal-esparru guztietan eta udalaren ardurapeko jardun guztietan bere hizkuntza-eskubideak bermatuak izan daitezen arduratuko da.

Bestalde, udalaren ardurakoak ez diren baina udalerrian garatzen diren beste jardueretan ere, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu daitezen, ekimen zehatzak sustatu eta bultzatuko ditu Udalak, herriko elkarte eta alor anitzetako ordezkariekin elkarlanean, dela kultura-arloan alor sozioekonomikoan, aisialdi esparruan, etab.

Era berean, euskara ikasi nahi duten herritarrei, doakotasuna bermatzeko neurriak hartuko ditu, beste erakunde batzuen laguntzak osatuz, edo laguntzarik jasoko ez luketen ikasleen kasuetan, bere gain hartuz matrikula-kostuak, asistentzia eta ahalegin jakinen baitan.

23. ARTIKULUA

1.- Toponimia

Arralde udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta, oro har, toponimoak, Arraldeko Udalak finkatuko ditu bere eskumen-esparruan; beti ere, toponimoaren jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko propioa erabiliz. Hori horrela delarik, Arralde udalerriko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspena egingo du Udalak, egin-kizun horren ardura dagokion Erakundearen zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren irizpideen arabera. Nolanahi ere, euskal jatorrizko leku-izena egonez gero horixe izango da forma ofiziala eta lehenetsia.

Udal barrutiaren auzoen izenak eta kaleen izendegia onetsiko da. Lan hori betetzeko Batzordea eratuko da eta horrek proposamen aurkeztuko dio Osoko Bilkurari.

2. Trafiko-seinaleak

Herri bideetako trafiko-seinale eta iragarpenak oro gutxienez euskaraz idatzita egongo dira. Beste hizkuntza bat erabili behar den kasuan, euskarazko testua lehenetsiko da, nazioarteko arauak errespetatu eta ulergarritasuna bermatzearen kalterik gabe.

2. Piktogramak

Ulgarritasuna piktograma bidez berma litekeen kasuetan, euskarazko testua bakarrik izango dute iragarpenek.

24. ARTIKULUA Garraio publikoa

Arraldeko garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak oro gutxienez euskaraz egingo dira. Era berean, abiapuntua Arralden ez eduki arren udalerrri honetan geralekua duten garraio publikoetako arduradunei araua errespetatu dezatela eskatuko zaie.

25. ARTIKULUA

1. Diru-laguntzak

Euskara gizarte-esparru guztietan eta publizitatean erabil dadin eta, oro har, gizarte-bizitzan euskaren presentzia gehi dadin neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei. Hortaz, Arraldeko Udalak aipatu xedearen harian eta bere jarduketan eremuan. Honako neurriok hartu eta betearaziko ditu:

1. Kultura-, kirol- eta aisialdi-elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontutan hartuko da.

Ondorioz, Arraldeko Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionaletan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz behintzat idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz ere egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak euskaraz ere eman beharko dituzte.

Euskaraz eta erdaraz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman

beharko zaio lehentasuna.

Subentzioak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da hori guztia, subentzio-hartzaileek, subentzioa jasoko badute, derrigorrez bete beharko dutena.

Euskalgintzan euskararen alde lan egiten duten erakunde bakoitzarekin hitzarmen berezituak izango ditu Udalak haien lana egoki eta eraginkorki egin dezaten eta emaitzak hobe daitezen.

2. Udal-instalazioen eta -materialen erabilera

Udal-instalazioak eta -materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipatutako baldintzak bete beharko dira. Udalak, beraz, frontoia, hesiak, oholtzak eta zernahi udal-instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza-baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenetariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.

3. Kioskoak, barrakak eta abar.

Ferietako zirkuetako, kioskoetako zein lurzoru publikoan jartzen den edozein instalaziotako idazki, iragarki eta kartelak euskaraz emango dira ezagutzera, eta beraz, instalatzeko baimena emateko baldintzen artean hori ere azalduko da, eta horrela jakinaraziko zaie jabeei, fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko delarik.

4. Publizitate-zerga.

Euskara hutsez idatzitako errotuluek ez dute publizitate-zergarik ordainduko.

Artikulu honetan xedatua betetzeko, Udalak, Euskararen Patronatuaren bidez, Hiriko bizitza sozial eta kulturalaren alor guztietan euskararen erabilpena sustatzeko kanpainak egingo ditu, bereziki merkataritzako, dendaritzako, lanbideetako, kulturako, kiroleko eta antzeko erakundeengana zuzenduz. Kanpainen helburu nagusia sektore desberdinetako enpresa, saltoki eta era guztietako entitateek normalizazio planak abiatzea izango da.

Normalizazio planak abiatzen dituzten enpresek laguntzak izango dituzte, bereziki baliabide urriak dituztenek eta gizartean nabarmentzeko kanpaina berezituak egingo ditu Arraldeko Udalak.

26. ARTIKULUA Irakaskuntza ez-unibertsitariora

Arralden ematen den irakaskuntza ez-unibertsitariora eredu euskaldunenak gero eta gehiago heda daitezen saio bereziak egingo ditu Udalak, batez ere matrikulazio-epeak irekitzean, euskalduntzea lortzen duen sistemaren alde egingo du Udalak eta Hezkuntza Sistemak belaunaldi berriak oso-osorik euskaldun daitezen lan politikoa egingo du. Era berean, eskola mundua eta eskola-umeen arteko giroa euskalduntzeko jarduera osagarriak ere bultzatuko ditu Udalak.

Hori guztia, ikastetxeekin, eta herriko kulturako, kiroleko eta Euskalgintzako taldeekin elkarlanean burutuko da.

27. ARTIKULUA Udal-haurtzaindegiak

Ama-hizkuntza euskara ez baizik eta beste edozein hizkuntza duten haurrek euskara nekerik gabe ikas dezaten bizitzako lehen urteak oso garrantzitsuak direla kontuan hartuz, Udala haur jaioberriak dituzten gurasoei sistematikoki zuzenduko zaie Udala Haurtzaindegi zerbitzuaren berri emanez eta zerbitzu horrek, euskara ikasteari dagokionean, beren haurrentzat dituen alderdi onak jakinaraziz. Arraldeko Udalak 0-3 urteko eskaintza euskara hutsezkoa izan dadin ziurtatuko du.

28. ARTIKULUA **Helduen euskalduntze alfabetatzea**

Hizkuntza-normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusietarikoa Arralden euskaraz hitz egiten dakitenen kopuru gehitzea eta hitz egiteko gai direnak alfabetatzea denez, eta kontuan hartuz erantzukizun publikoa dela euskararen erabilera normalizatzea, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako eskaintza bereziki indartuko du Udal honek.

29. ARTIKULUA **Gizarte-bizitzaren euskalduntzea**

Udalerriko gizarte-bizitza euskalduntzearen, Udalak hainbat sektore euskalduntzeko prozesuak bultzatuko ditu, eta haur, gazte eta helduentzako kultura eta aisiarako ekintzak antolatuko ditu, hirian dauden euskaltegiekin lankidetzan jardunez.

Publikoari irekita dauden espazioen paisaia euskalduntzeko neurriak hartuko ditu Udalak, bereziki merkataritzan eta mundu asoziatiboan.

30. ARTIKULUA **Udal Euskara Zerbitzua**

Arraldeko udalak euskara zerbitzurik ez balu sortu egingo luke. Ordenantza honen aplikazioaren ardurar teknikoa udalaren Euskara Zerbitzuak hartuko du. Arraldeko udalak behar diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak jarriko ditu behar bezalako kudeaketa egin ahal izateko. Euskara Zerbitzuaren ardurak hauek dira:

- 1.- Proposamenak egitea
- 2.- Jarraipenerako Batzordearekin elkarlanean aritzea
- 3.- Jarraipen Batzordeak eta Osoko bilkurak hartutako erabakiak eta onartutako plangintzak aplikatzea eta haien ebaluazioa egitea.

31. ARTIKULUA **Kexak bideratzea**

Udalerri barruan, edozein Zerbitzu Publikotan ere, ordenantzan xedatutakoa beteko ez balitz kexua bideratu ahal izango da udaleko Euskara-zerbitzuaren bidez eta azken horrek dagokion Administrazio organoari helaraziko dio. Beharrezkoa balitz, Udalbatza bera arduratuko da kexa horren zuzenketaz.

Xedapen Gehigarriak

Jarraipenerako Batzorde Berezia

LEHENENGOA

Hizkuntza-normalizazioaren bilakaeraren segimendua egiteko Batzorde Berezia eratuko da, non Udaleko ordezkari politikoez gain, langileen ordezkariak ere esku hartuko baitute. Batzordean Euskalgintzako nahiz herriko bestelako (kultura, kirola, merkataritza...) erakundeek berebiziko garrantzia izango dute eta parte hartuko dute ordenantza honen aplikazioari dagokion gaietan.

Arraldeko Udalak, instituzioek egin behar duten euskara normalizatzeko lana ezinbestekotzat jotzen du, eta, era berean, nahitaezkoztzat jotzen du udalerrian, euskararen normalizazioan zeresanik duten pertsona eta erakundeekin harremanetan lan egitea, euskara Arraldeko Udalean eta udalerrian normalizatzen bada, denon elkarlanaren fruitu besterik ezin baitaiteke izan. Horrexegatik, Arraldeko Udalak bere lana eta pertsona nahiz erakunde horiena koordinatu asmoz, eta hizkuntza-normalizazioaren bilakabidearen segimendua egiteko Batzorde Berezia eratuko du. Udaleko ordezkari politikoez gain, langileen ordezkariak ere esku hartuko dute, langileriaren euskalduntzeari eta hizkuntza-eskizunaren aplikazioari buruzko gaietan. Batzordean Euskalgintzako erakundeek berebiziko garrantzia izango dute eta normalizazioaren bilakaeraren inguruko aholkulari ofizialak izango dira.

Batzordearen betebeharrak

BIGARRENA

Batzorde horri dagokio Ordenantza hau betetzera zuzendutako proposamenak prestatzea, eta baita Ordenantzaren garapenaren segimendua, kontrol eta ebaluaketa-lanak. Aldiro, ezarritako helburuen betetze maila ebaluatuko du, eta halaber euskalduntze-prozesuaren edozein fasetan sumatutako atzerapen edo zailtasunak konpontzeko neurri egokiak aztertuko ditu.

Emaitzen neurketa

HIRUGARRENA

Ordenantza hau indarrean sartu eta handik lau urtera Batzorde honek neurtu egingo ditu hizkuntza-normalizazio prozesuan lortutako emaitzak, eta horrela badagokio, Udalari Ordenantza berrikusteko proposatuko dio.

Udal ordenantzetan azaltzen diren xedapenen betetze maila egiaztatzeko urtero txosten bat idatziko du Euskara-batzordeak ekainaren 30erako. Honetarako, udaleko Euskara-zerbitzuak jarraipenaren sistematizazioa proposatuko du, hau da, zein adierazle, noiz eta nola ebaluatzen dituen adieraziko duen sistema.


LAUGARRENA


Langileen ordezkariari entzun egingo zaio euskalduntze-planak eta euskarako ikastaroetara joateko egutegiak egin baino lehen eta Arraldeko Euskalgintzarekin harremanak estutuko ditu pauso eraginkorrak emateko aseguru gisa.

Udal-proiektuak

Udal-proiektu eta -programa guztietan aintzat hartuko da Ordenantza honek bizkarrezur duen hizkuntza-normalizazioaren irizpidea.

**Kontseilua
2007ko otsaila**





EUSKARAREN GIZARTE ERABUNDEEN
KONTSEILUA

